

Cultura | Libros

Zigor Iturrietak 'Txoriene'n prestatu dituen 80 errezeta



Ereineko a Jose Agustin Iturri, Zigor Iturrieta eta ETBko zuzendari Edu Barinaga.

Saiora gonbidatu etorri diren lagunekin batera prestatutako platerak 'Txorieneko lau urtarokak' liburuan bildu dituzte

Jueves, 29 noviembre 2018, 17:39



'Txorieneko lau urtarokak' izenburupean liburua argitaratu du Zigor Iturrietak, ETB1eko sukaldaritza saioan prestatu dituen jakiekin. 80 errezeta bildu dituzte eta bakoitza programara etorritako gonbidatu batekin dago uztartuta. Sukaldaritza liburuaren aurkezpena EiTBBren Miramongo egoitzan egin da, 'Txoriene'ren etxean, ostegun honetan. Bertan izan dira, Zigor Iturrieta egilearekin batera, Edu Barinaga ETBko zuzendaria, Gorka Garcia ETBko Programa eta Arte zuzendaria, eta Jose Agustin Iturri Erein argitaletxeko ordezkaria.

'Txoriene' saioaren argitalpen honek badu bereizgarri bat: antzinako sukaldaritza liburuetan bezala, errezetak urtaroka sailkatuta doaz. «Lan egiteko modu hau nire aitari kopiatu diot, berak horrela egin zuen beste errezeta liburu handi batean, 'La cocina vasca en Bizkaia'», dio Zigor Iturrietak.

Sasoiko produktuei garrantzia emate aldera, urtaroka antolatu ohi ziren garai bateko liburuak, eta egitura hori berreskuratu du 'Txorieneko lau urtarokak' liburuak. Atal bakoitzean lehen platerak, arrainak, haragiak eta azkenburukoak edo postreak topatuko ditugu.

Bestalde, errezeta bakoitzak gonbidatu baten aurpegia du eta, gehienetan, harekiko harremana ere bai: «Gure gonbidatuek egiten dute berezi programa. Grabaketa egunetan, gure platoa Euskal Herriko edozein elkarte gastronomikotako sukalde bilakatzen da, non, bi lagun aritzen diren beren kontuez solasean eguneko otordua prestatzen duten bitartean», azpimarratu du Zigor Iturrietak.

Gonbidatuarekiko begirunez jokatzeko du 'Txoriene' saioak, aurrez berarekin hitz egiten dute, ea zer duen gustuko galdetzeko, ea zer probatu nahi duen esateko edota beraren ogibidearekin lotura duen errezetaren bat aukeratzeko. Hiru urte hauetan Zigor Iturrietak alboan izan dituen lagun guztiak sartzea ezinezkoa izan da eta 80 aukeratu dituzte.

Errezeta bakoitzak QR kode bat darama, errezeta dagoen eitb.eus-eko orrira eramango gaituena. Prestatutako plateraren eta gonbidatuaren argazkia ere badauka.

Liburuaren hitzaurrea Zigor Iturrietaren ikastolako bi irakaslek idatzi dute. Biek ala biek oso gogoan dute Zigorrek sukaldean aritzeko zuen grina: ikaskideak patiora jolasera joaten ziren bitartean, bera sukaldaria joaten zen ikastolako jantokiko sukaldariei laguntzera.

2015eko martxoan hartu zuen Zigor Iturrietak (Euba, 1974) 'Txoriene' saioaren gidaritza. Durangoko sukaldari eta mendi lasterkariak gastro-talk izaera areagotu zion ETBko sukaldaritza saioari, solasari garrantzia gehiago emanez. Jatekoa prestatu ez ezik, gonbidatuaren jakinduria modu natural batean transmititu eta zabaltzea dute helburu.

Denbora honetan 600 saio baino gehiago egin dituzte eta ehunka gonbidatu hartu dituzte platoan: kirolariak, kulturgintza arloko jendea, Euskal Herriko elkarte ezberdinetako ordezkariak, jatetxeetako sukaldariak, hornitzaileak...

TEMAS Euskera



La mejor selección de noticias en tu mail

Recibe las principales noticias, análisis e historias apuntándote a nuestras newsletters

Apúntate

Lo + leído

El Diario
Vasco

Libros

[Top](#)

[50](#)

1 Los reflejos infinitos del espejo de Robinson Crusoe

2 Un libro relata la historia de la pesca del bacalao y los vascos

Neskatoak ez daki zer egingo dion pederastak, irakurleak bai


3

4 El quidditch, el deporte que descubrió Harry Potter


5 Pablo Aranda: «Nuestra frontera sur bien podría constituirse en territorio literario»

Patrocinada


Noticias relacionadas



Jon Arretzek Bilbotik Pirinioetara bidali du Toure, ardiak zaintzera



'Everest: Herri oso bat gailurrean', balentria baten kronika marraztua




'Poza', kontatzeko baino gehiago kantatzeko den liburua



📷 Joaquín Montero, el arquitecto que mira alrededor



📷 La Trilogía de Baztan



📷 El actor Roger Moore, imagen del Brandy 103 en los años 60





▶ **Presentación de la maqueta de la escultura de Cristina Iglesias para el faro de la isla Santa Clara**

Vídeos



▶ **Poza, ikusteko eta entzuteko bertsoak**



▶ **21. Korrikaren abestia eta bideoklipa**



▶ **Guns n' Roses terminan antes de tiempo un concierto por enfermedad de Axl Rose**



▶ **Izal anuncia nuevo concierto en Madrid tras agotar entradas**

EL DIARIO VASCO

© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A. Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018



vocento 

[Contactar](#)

[Aviso legal](#)

[Política de privacidad](#)

[Publicidad](#)

[Mapa web](#)

[Política de cookies](#)